

LITERATURA UNIBERTSALA



FATIMA MERNISSI

Terraza debekatua

Haremeko neskato baten istorioak

Edurne Lazkano Ibarbia

Fatima Mernissi

Terraza debekatua

Haremeko neskato baten istorioak

Edurne Lazkano Ibarbia

Itzultzailea

Jatorrizko izenburua:

Dreams of Trespass

1. argitalpena: 2025eko azaroan.

© Azaleko margolanarena: 2025, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2025, Edurne Lazkano Ibarbia

© Hitzaurrearena: 2025, Edurne Lazkano Ibarbia

© Argitalpen honena: 2025, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Maketazioa: A. Beltza

Inprimatzailea: Ulzama S.A.

ISBN: 978-84-1093-019-3

LG: D 1069-2025

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo alda-keta egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.



FATIMA MERNISSI
1940-2015

HITZAURREA

Fatima Mernissi idazlea, historialaria, soziologiako doktorea, irakaslea eta Koraneko testuetan aditua izan zen, bai eta feminismo islamiarraren aitzindarietako bat ere. Bizi zen gizartearekin hartu zuen konpromiso estua erakusten duten lan asko idatzi zituen, kutsu iraultzailekoak horietako asko.

Emakumeek islamean zuten irudia aldatzen ahalegindu zen Fatima Mernissi bere idatzietan, boterean zeuden gizonek Liburu Sakratuak gaizki interpretatu eta beren alde erabili zituztela uste baitzuen. Emakumeen eskubideak defendatu zituen mundu arabiar eta islamiarrean, eta erreferente bihurtu zen mundu musulmanean.

Fezeko erdi mailako familia batean jaio zen, 1940an. Lehen eta bigarren mailako ikasketak Fezen egin ostean, Rabatera jo zuen Zientzia Politikoak ikastera, eta han lizentziatu ostean, Parisko Sorbonako Unibertsitatean jarraitu zituen ikasketak. Gero, doktore egin zen soziologian, Ameriketako Estatu Batuetako Brandeis Unibertsitatean, eta, bere herrialdera itzuli ostean, irakasle izan zen Muhammad V.a Unibertsitatean, eta ikertzaile Marokoko Institute Universitaire de

Recherche Scientifique erakundean. Europako eta AEBko unibertsitate askotan aritu zen irakasle bisitari.

1975ean idatzi zuen bere lehen liburua, *Beyond the Veil: Male-Female Dynamics in Modern Muslim Society*, Brandeis Unibertsitatean egin zuen doktore-tesian oinarrituta. Lan klasiko bihurtu da liburua, batez ere arabiar munduko, Mediterraneoko eta oro har gizarte musulmanetako emakumeen soziologiaren eta antropologiaren esparruetan. Hirietako marokoar emakumeekin egindako elkarrizketak eta erlijio-aholkularitzako zerbitzu batera bidalitako gutunak hartu zituen oinarri, eta islam ofiziala eta genero-berdintasuna kontraesanean zeudela erakusten saiatu zen.

1987an, beste liburu bat argitaratu zuen Fatima Mernissik eta maila gorenera iritsiko zen laster: *Le Harem Politique: Le Prophète et les Femmes*. Modernismoaren aurretik giza eskubideen defentsa egiten zuten tradizio islamiarrak aztertu zituen lan honetan. Mernissi ohartu zen testu koranikoak berrikusi behar zituela, bere lanetan aritzeko eskubidea defendatzeko, eta gune islamiar zenbaitetan nagusi zen misoginia agerian jarri zuen horrela. Besteak beste, aldarrikatu zuen Mahoma gizon feminista zela eta bere garairako oso aurrerakoia. Ez hura, baizik eta haren ondorengoak hasi ziren emakumeak bigarren klaseko pertsonatzat hartzen.

Harenak dira, halaber, *Le Maroc Raconté par ses Femmes* (1983) edota *Sultanes oubliées. Femmes chefs d'État en Islam* lanak (1990), marokoar emakume ugariri egindako elkarrizketak biltzen dituzten liburuak; *Dreams of Trespass: Tales of a Harem Girlhood* (1994),

haren eleberri bakarra eta gaur euskaratuta dakarguna, edota *Scheherazade Goes West. Different Cultures, Different Harems* (2001), bere eleberria aurkeztuz Amerikan eta Europan zehar egindako bidaietan bildu zituen go-goetak jasotzen dituen.

Hemen aipatu ditudan liburuak ez dira Fatima Mernissik idatzitako batzuk baino. Guztietan ere, emakumeek hitzaren bidez borrokatu behar zutela zioen, hitza delako berdintasuna lortu eta iraultza egiteko arma nagusia.

Terraza debekatua

Literatura Unibertsalaren bildumara euskaratuta dakargun *Terraza debekatua* eleberri honi buruz errepika dezagun, hasteko, Mernissik maiz esan izan zuena, fikzioa zela, estilo autobiografikoa erabili bazuen ere. Fezeko haren etxean, haremean, edota amaren aldeko aitonarenean kokatzen gaitu eleberriak, eta askotariko gaiak darabiltza: emakumeen eskubideen urraketa, familiako emakumeen arteko ahizpatasuna edo ahizpatasun falta, zoriona, maitasuna, hegoei –eta ametsi– hazten utzi beharra, Xeherezade eta haren ipuinak, *hammamak*, jakiak, bilerak, edertasun-tratamenduen sekretuak...

Familia handi horretan, askotariko pertsonaiak ezagutuko ditugu: ama, egokitu zaion bizimoduarekin ados ez, eta alaba bide berrien bila bultzatuko duena; izeba Habiba, goiko solairuetako bazterreko geletara baztertu arren Fatimaren bizitzaren erdigunean kokatuko den emakumea, ametsen eta hegoen indarraz hitz

egingo diona; Samir, gizarteko muga zorrotzek banatzen dituzten arte heldu bihurtzeko prozesuan bidelagun izango duen lehengusua; Chama, lehengusina zaharra goa eta bide-erakuslea; amona Lalla Mani, aitarena ama, emakume zorrotza eta familiako ohiturei estu eutsi nahian dabilena; amona Yasmina, amaren ama, landetxeko eremu zabaletan begirada zabaltzen irakatsiko diona; Tamou, Rifetik etorri zen gerlaria, edo Mina, ume zela harrapatu zuten emakume esklabo, norberak barruan duen indarraz hitz egingo diona.

Fatima Mernissi, eleberria bukatu ostean, Mendebaldeko hainbat hiritan izan zen liburua aurkeztzen, eta harrituta gelditu zen *harem* hitza aipatze hutsak kazetarien artean sortzen zituen irribarre eta begiratuekin. Bidaia horietan bildutako esperientzia guztiekin, liburu zoragarri bat idatzi zuen Mernissik, *Scheherezade Goes West*. Hala dio liburu horretako lehen kapituluan, *harem* hitzak sortzen zituen erreakzioez: «Nola egin dezake irribarre inork kartzela hitzaren sinonimo bat aipatuta? Yasminarentzat, haremak bere eskubideak gordinki urratzea esan nahi zuen, bidaiatzeko eskubidea eta Alaren planeta eder eta konplikatua ezagutzekoa, esaterako. Baina, Yasminaren filosofiari jarraiki (gerora jakin nuen sufiei, islameko mistikoei, zegokiela ikuspegi hura), hasierako harridura hura aldatu, eta *harem* hitzari esanahi desberdina ematen zioten atzerritar haiengan-dik ikasteko prestatu behar nuen neure burua». Eleberrian eta azken liburu honetan maiz nabarmenduko zuenez, kanpokoa ezagutzeak, zure ikuspegi zabal-tzeaz gain, bidea ematen dizu zeure burua hobeto

ezagutzeko. Aitortuko dut neuri ere horrelako zerbait gertatu zaidala liburu hau irakurri eta itzultzean, neure umezaroko hainbat bizipen ekarri eta berriro biziara baitizkit.

EIZIEren bidez ezagutu dut Fatima Mernissi, eta plazer hutsa izan da haren liburu hau itzultzea. Izan bedi gozagarri eskuartean hartzen duen irakurlearentzat ere.

Edurne Lazkano Ibarbia

ARGITARATZAILEAREN OHARRA

Fatima Mernissiren lan honen nazioarteko ibilbideak erakusten du nola hizkuntza bakoitzak liburuaren izenburuari kolore eta enfasi desberdina eman dion: frantsesez *Rêves de femmes*, ingelesez *Dreams of Trespass* eta *The Harem Within*, gaztelaniaz *Sueños en el umbral*, italieraz *La terrazza proibita*, nederlandera *Het verboden dakterras*, finlandieraz eta norvegieraz askatasunaren ametsari loturiko enuntziatuak, edo Brasilgo portugesez transgresioaren ideari heltzen dion *Sonhos de Transgressão*, eta Portugalen, berriz, *Sonhos Proibidos*.

Aldaera horiek guztiek argi uzten dute obraren bi ardatz nagusiak direla mugak eta haien gainditzea; hala ere, gure edizioan *Terraza debekatua* hautatu dugu, Mernissik bere haurtzaroko espazio sinboliko eta fisiko hori —etxeko teilatuko terraza— askatasunaren eta transgresioaren arteko tentsioaren gune gisa irudikatzen duelako. Izenburu honek, beraz, beste hizkuntzetako bertsio batzuek nabarmendu duten modu berean, kontakizunaren muina islatzen du: debekua, muga eta, aldi berean, amets egiteko lekua.

Fatima Mernissi

Terraza debekatua

Haremeko neskato baten istorioak

Nire haremaren mugak

Harem batean jaio nintzen, 1940an, IX. mendeko hiri marokoar batean, Fezen, Mekatik bost mila kilometro mendebaldera, eta Madrildik, arrisku handiko kristauen hiriburu hartatik, mila kilometro hegoaldera. Kristauekin, emakumeekin bezala, *hudud* edo muga sakratua errespetatzen ez denean hasten dira arazoak, horixe esaten zuen gure aitak. Kaosaren erdian jaio nintzen ni, ez kristauek ez emakumeek ez zutelako mugarik onartzen. Atalasean, hantxe ikusiko zenituen haremeko emakumeak Ahmed atezainarekin eztabaidan eta istilutan; bien bitartean, iparraldeko soldadu atzerritarak hirian zabaltzen ari ziren. Gure kalearen amaieran zeuden, hain justu, atzerritarak, hiri zaharraren eta eurentzat eraikitzen ari ziren Ville Nouvelle edo hiri berriaren artean. Alak Lurra sortu zuenean, zerbaitengatik bereizi zituen gizonak eta emakumeak, esaten zuen gure aitak, eta itsaso bat jarri zuen musulmanen eta kristauen artean. Talde bakoitzak bestearen aginduzko mugak errespetatzen dituenean, harmonia dago, eta muga horiek urratzeak ez dakar atsekabea eta zorigaitza baino. Mugak urratzea zerabilten buruan beti emakumeek,

ordea. Ateaz haraindiko mundua obsesio bihurtu zitzaien. Kale ezezagunetan gora eta behera ibiltzearekin egiten zuten amets egun osoan, eta, bien bitartean, kristauak itsasoa zeharkatzen jarraitzen zuten, heriotza eta kaosa ekarriz.

Iparraldetik datoz arazoak eta haize hotzak, eta guk, aldiz, Ekialdera begira egiten dugu otoitz. Urruti dago Meka. Iritsiko dira haraino zure otoitzak, baldin eta nola kontzentratu badakizu. Irakatsiko zidaten kontzentratzen garaia iristean. Madrilgo soldaduek Fez iparraldean kanpatu zuten, eta osaba Alik eta aitak ere, hirian botere handia izan arren eta etxean edonoren gainean agindu arren, baimena eskatu behar zioten Madrili, Tangerretik gertu, hirurehun bat kilometrora, Moulay Abdesslamen festa erlijiosora joateko. Hala ere, gure atearen kanpoaldean zeuden soldaduak frantziarrak ziren, beste tribu batekoak. Kristauak ziren, espainiarrak bezala, baina beste hizkuntza bat zuten, eta iparralde-rago bizi ziren. Paris zen haien hiriburua. Nire lehen-gusu Samirrek esan zidan Paris bi mila kilometro ingurura zegoela, Madril baino bi aldiz urrunago, eta bi aldiz basatiagoa zela. Kristauak, musulmanak bezala, borrokan zebiltzan beti elkarren aurka, eta espainiarrek eta frantziarrek elkar hil zuten ia, gure mugak gurutzatu zituztenean. Baina batak bestea suntsitzerik lortu ez, eta Maroko erdibitzea erabaki zuten. Soldaduak jarri zituzten 'Arbaoua inguruan, eta esan zuten, iparraldera joan nahi bagenuen, baimena beharko genuela aurretzean, hura Maroko espainiarra zelako. Hegoaldera joateko, berriz, beste baimen bat beharko genuen, zati

hura Maroko frantziarra zelako. Agindutakoa betetzen ez zuena 'Arbaouan bertan geldituko zen, atetzar bat altxatu baitzuten toki arbitrario hartan, eta huraxe zela muga esan. Baina Maroko han zegoen mende asko lehenagotik ere, zatitu gabe, horixe esaten zuen aitak, eta hantxe zegoen duela hamalau mende islama iristerako ere. Ordura arte, inork ez zuen ezer aditu lurraldea bitan zatitzen zuen muga hartaz. Gudarien buruan zegoen lerro ikusezin bat baino ez zen muga.

Lehengusu Samirrek, batzuetan osabari eta aitari beren bidaietan laguntzen baitzien, esan zidan muga bat sortzeko soldaduak baino ez direla behar, besteei muga horretan sinetsaraziko dieten soldaduak. Ez da ezertxo ere aldatzen paisaian. Boteretsuaren buruan dago muga. Nik ezin nuen haiekin joan eta halakorik ikusi, osabak eta aitak esaten baitzuten neskek ez dutela bidaiatzen. Arriskutsua da bidaiatzea, eta emakumeek ezin dute beren burua babestu. Izeba Habibak, inolako arrazoirik eman gabe horren maite zuen senarrak arbuiatua eta bidalia izan zenak, esaten zuen emakumeak babesten zituen *hududa* urratu zuten gizonak zigortzera bidali zuela Alak Iparraldeko armada. Emakume bati min egiten badiozu, Alaren muga sakratua urratzen duzu. Legearen kontrakoa da ahulei min egitea. Urte askoan jardun zuen negarrez izeba Habibak.

«*Hududa* edo muga sakratuak non dauden jakitea da Hezkuntza», esaten zuen Lalla Tamek, eskola koranikoko maistraburuak; eskola hartara joaten nintzen hiru urte nituenetik, nire hamar lehengusu-lehengusinekin batera. Zigor luze eta mehatxatzaile bat zeukan gure

maistrak, eta ados nengoen ni beti harekin, edozertan: izan muga, izan kristauak, izan hezkuntza. *Hududa* errespetatzea zen musulmana izatea. Eta, haur batentzat, *hududa* errespetatzea esanekoa izatea zen. Lalla Tamen gustuko izan nahi nuen nik zinez, baina, entzuten ez zidan batean, ni baino bi urte zaharragoa zen lehengusina Malikari galdetu nion ea non zegoen *hududa* zehazki. Gauza bakarra zekiela seguru esan zidan hark: maistraren esana betetzen banuen, ondo joango zitzaidala gutia. Maistrak debekatutako oro zen *hududa*. Lasaitu egin ninduten lehengusinarekin hitzek, eta eskola gustatzen hasi zitzaidan.

Harrezkero, muga bilatzea izan dut zeregin nagusi nire bizitzan. Larritasunak hartzen nau, nire ezintasuna antolatzen duen lerro geometrikoa bere tokian kokatu ezin dudanean.

Hautzaro zoriontsua izan nuen, mugak eguerdiko argia baino argiago zeudelako. Lehen muga gure familiaren egongela eta patioa bereizten zituen atalasea zen. Goizetan, ez neukan patiora irteterik ama esnatu arte, eta horrek esan nahi zuen goizeko seietatik zortzietara neure burua entretenitu behar nuela, zaratarik atera gabe. Nahi banuen, marmol zuriko atalase hotzean eser nintekeen, baina ezin nintzen elkartu ordurako jolasean ari ziren lehengusu-lehengusina zaharragoekin.

—Ez dakizu oraindik zeure burua babesten —esaten zidan amak—. Jolasa ere gerran aritzea bezala da.

Beldurra nion nik gerrari, eta, hortaz, nire kuxin txikia atalasean ezarri, eta *l-msaria b-lglass* jolasean (hots, «paseoan eserita» hitzez hitz) ibiltzen nintzen; neuk

asmatu nuen jolas hura garai hartan, eta lagungarria gertatzen zait gaur egun ere. Hiru gauza baino ez dituzu behar jolasteko. Lehen-lehenik, geldi-geldi egon behar duzu zauden tokian; bigarrenik, esertzeko toki bat behar duzu, eta, hirugarrenik, aldarte apala izan behar duzu, zure denborak piperrik ez duela balio onartzeko. Jolasaren gakoa da familia-eremuari zugandik at dagoen zerbait balitz bezala begiratzea.

Ate aurrean eseri, eta gure etxeari begira egoten nintzaion, inoiz ikusi izan ez banu bezala. Lehen-lehenik, karratu-formako patio zurruna zegoen, simetriaren arauak gobernatua. Patioaren erdian borborka ageri zen marmolezko iturri zuriak ere kontrolpean eta bezatua zirudien. Iturriak faiantza-friso zuri-urdin bat zeukan bere zirkunferentzia osoan, zoruko marmolezko baldosa karratuen diseinua errepikatzen zuena. Patioa arku sail batek inguratzen zuen, lau zutabek eutsirik alde bakoitzean. Marmolezkoak zituzten oinarri eta kapitelak zutabeek, eta azuleju zuri-urdinak erdialdean, iturriko eta lurreko diseinuekin halako ispilu-joko bat sortuz. Patioan zehar, lau egongela handi zeuden, parez pare bina. Gela bakoitzak atetzar bat zeukan erdian, eta leiho itzelak albo banatan, patiora begira. Goizean goiz, eta neguan ere bai, ondo itxita egon ohi ziren egongela horietako sarrerak, lore zizelkatuekiko zedrozko ateekin. Udan, berriz, irekita egoten ziren, eta brokatu sendo, belus eta parpailazko errezelak askatzen ziren, brisari bidea libre uzteko eta argia eta zaratak kanpoan uzteko. Egongeletako leihoek landutako leiho-oholak zituzten barrualdetik, ateen antzekoak; baina, kanpoaldetik, burdina

forjatuzko sare zilarkarak baino ez zenituen ikusiko, eta kolore zoragarriekiko kristalezko arkuak gainean. Asko gustatzen zitzaizkidan koloretako kristalez egindako arku haiek, egunsentiko eguzkiak kolore gorri eta urdinak birarazten zituen moduagatik, kolore horiak leunduz. Egurrezko atetzarrak bezala, leihoak ere irekita uzten ziren udan, eta errezelak gauez baino ez ziren zabaltzen, edota siesta-garaian, loa babesteko.

Igo begiak zerurantz, eta bi solairuko egitura dotore bat ikusiko zenuen; goiko solairuetan, beheko patioiko arku sailak errepikatzen ziren, burdinazko baranda zilarkara batez inguratuak. Eta, azkenik, zerua zegoen, goian eskegita, baina forma karratu zehatza osatuz, gainerako guztia bezala, eta marko sendo batean bildua, okre- eta urre-kolore histuko diseinu geometrikoarekin.

Egundoko esperientzia zen patiotik zerura begiratzea. Hasieran, mendean hartua zirudien, gizakiak egindako marko karratuagatik. Baina, gero, egunsentiko izarren mugimenduak, urdin eta zurien sakonean pixkana lausotzen, horrenbesteko intentsitatea hartzen zuen, non zorabiatu egiten zintuen. Hipnotizatu ere bai, zenbait egunetan, neguan batik bat, purpura eta arrosa biziko eguzki-izpiek egoskor dizdizka ari ziren azken izarrrak kanporatzen zituztenean. Buruari atzera eragin eta zeru karratuari begira, lozorroan sumatuko zenuen zeure burua; baina, orduan, jendea patioan sartzen hasten zen, edonondik, ateetatik, eskaileretatik... Ene, ahaztu nituen ia eskailerak. Patioaren lau ertzetan zeuden eskailera haiek garrantzi handikoak ziren helduentzat ere,

ezkutaleku erraldoi hartan ezkutaketan bezala ibiltzen baitziren, kolore berde beirakarako mailadietan gora eta behera.

Aurrez aurre, patioaren beste aldean, osabaren, haren emaztearen eta euren zazpi seme-alaben egongela neukan, gurearen berdin-berdina. Gure amak ez zukeen onartuko bereizketa nabarmenik gure egongelaren eta osabarenaren artean, seme zaharrena osaba izan arren eta, tradizioz, gela handi eta apainagoak zegozkion arren. Osaba ez zen aita baino zaharragoa eta aberatsagoa soilik, haren familia ere handiagoa zen. Bost baino ez ginen gu: ahizpa, anaia, gurasoak eta ni. Osabaren familiar, bederatzi ziren (edo hamar, emaztearen ahizpa kontatuz gero, askotan joaten baitzitzaien bisitan Rabatetik eta, tarteka, eurekin geratzen baitzen, sei hila-betez ere bai batzuetan, senarrak bigarren emaztea hartu zuenetik). Baina gure amak gorroto zuen haremeko bizimodu komunala, eta amets egiten zuen aitarekin etengabeko *tête-à-tête* batean bizitzearekin; bada, *'azma* akordioa esaten zion hura (krisi egoerako akordioa) onartu bazuen, emazteen artean bereizketarik ez egitekotan onartu zuen. Osabaren emazteak zituen pribilegio berberak zituen gure amak ere, biak maila berekoak ez izan arren. Osabak zintzo betetzen zuen akordio hura; izan ere, ondo kudeatutako harem batean, zenbat eta boteretsuagoa izan, orduan eta eskuzabalagoa izan behar duzu. Egia esan, osabak eta haren seme-alabek toki gehiago zuten, baina goiko solairuan, horren publikoa zen patio hartatik urrun. Ez dago boterea zertan erakuskeriaz erabili.

Aitaren aldeko amonari, Lalla Maniri, ezkerretara neukan egongela zegokion. Egunean bi aldiz baino ez ginen joaten hara: goizean, eskuetan musu ematera, eta gauean berriro, gauza bera egitera. Gainerako egongela guztiak bezala, zetazko brokatuekiko sofez eta lau hormetan zehar zabaltzen ziren kuxinez hornituta zegoen. Ispilutzar bat zegoen erdi-erdian, sarrerako atearen barrualdea eta kontu handiz landutako errezelak islatzen zituen. Eta kolore apaleko alfonbra loredun batek estaltzen zuen zorua erabat. Inoiz ez genuen zapaldu behar haren alfonbra txapinekin, inoiz ere ez, eta are gutxiago oinak bustita bagenituen; udan, ordea, ezinezkoa zen hori, egunean bi aldiz bustitzen baitzuten lurzorua iturriko urarekin, freskatzeko. Familiako neska gazteak, lehengusina Chama eta haren ahizpak, esaterako, oso gustura ibiltzen ziren *la piscine* jolasean, patioa garbitzen zutenean: baldeak urez bete, eta lurrera isurtzen zituzten, «nahi gabe» ingurukoak zipriztinduz. Horrek, nola ez, adorea ematen zigun txikienoi, batez ere nire lehengusu Samirri eta niri, sukaldera joan eta ureztatzeko hodiez armatuta itzultzeko. Orduan bai, guztiak zipriztintzen genituen goitik behera, eta, oihuka, gu geldiarazten saiatzen ziren denak. Lalla Mani asaldatu egiten zuten gure oihuek, eta, haserre, errezelak igo, eta errieta egiten zigun, esanez gauean bertan osabari eta aitari esango ziela.

—Esango diet etxe honetan jada inork ez duela errespetatzen agintea —esaten zuen.

Lalla Manik gorroto zuen gu elkarri ura botatzen ibiltzea, eta gorroto zituen oin bustiak. Iturri ondoan

ibili ondoren harekin hitz egitera joaten baginen, esaterako, hantxe bertan geldiarazten gintuen.

—Ez hitz egin niri oin bustiekin —esaten zuen—. Lehen-lehenik, zoazte, eta lehortu ondo.

Amonaren iritziz, oin garbi eta lehorren araua urratzen zuena estigmatizatua geratuko zen betiko, eta haren alfonbra loreduna zapaldu edo are zikintzen bagenuen, urte luzez ekarriko zigun gogora gure hobena. Besteen errespetua nahi zuen Lalla Manik; hau da, bitxiz hornitutako burukoa jantzi, bakar-bakarrik eta dotore eseri eta, isilean, patioari begira egotea. Isiltasun sakonean egotea gustatzen zitzaion. Luxuzko pribilegio bat baitzen isiltasuna, haurrak urrun eduki zitzaketen zorioneko bakan batzuen pribilegioa.

Azkenik, egongelarik handiena eta dotoreena patioaren eskuinaldean zegoen: gizonen jangela zen, non gizonek jan, berriak entzun, tratuak egin eta kartetan jokatzten zuten. Gizonak baino ezin zuten erabili, berez, irrati-altzari handia, zeina egongelaren eskuineko txokoan gordetzen baitzuten. Irratia piztuta ez zutenean, ateak itxita izaten zituen altzariak. (Dena den, bozgorailuak zeuden kanpoan, guztiek entzun zezaten). Aita sinetsita zegoen irrati-altzari hura irekitzeko bi giltza zeudela bakarrik: berea eta osabarena. Baina, bitxia bada ere, emakumeek Kairo irratia entzuten zuten aldian-aldian, gizonak kanpoan zirenean. Begibistan gizonik ez zegoenean, dantzan ibiltzen ziren Chama eta ama, irratiaren doinuei jarraiki, eta *Ahwa* (Maitemin-duta nago) abesten zuten, Libanoko Asmahan printzesa-rekin batera. Oso gogoan dut noiz erabili zuten helduek

lehen aldiz *khain* hitza (traidoreak) Samir eta ni izendatzeko: aitak kanpoan izan ziren bitartean zer egin genuen galdetu, eta guk Kairo irratia entzuten egon ginela esan genionean. Gure erantzunak esan nahi zuen bazela han legez kanpoko giltza bat. Zehatz-mehatz esan nahi zuen emakumeek giltza harrapatu eta kopia bat egin zutela.

—Irrati-altzariaren giltza egin badute, sarrerako atea irekitzeko beste bat egingo dute hurrena —esan zuen aitak marmarka. Eztabaida sutsua sortu zen orduan, eta banan-banan galdekatu zituzten emakumeak gizonen egongelan. Baina, bi egunez galdezka ibili ondoren, bazirudien irrati-altzariaren giltza zerutik erori zela. Inork ere ez zekien nondik agertu zen.

Hala ere, ikerketen ondoren, mendeku hartu ziguten guri, haurroi. Traidoreak ginela esan zuten, eta euren jokoetatik kanpo utziko gintuztela. A zer etorkizun zitala zetorkigun! Geure burua defendatzeko, egia baino ez genuela esan azaldu genien. Amak erantzun zigun bazirela gauza batzuk, egia izanagatik, ezin esan zenituenak: isilpean gorde beharrekoak ziren. Gaineratu zuen esaten duzunak eta isilean gordetzen duzunak ez dutela zerikusirik egiarekin eta gezurrarekin. Aldea zertan zertzan azaltzeko eskatu genion orduan, baina ez zigun ezer argitu haren erantzunak.

—Zuek neurtu behar duzue zuen hitzek zer eragin duten —esan zigun—. Esaten duzuen horrek norbaiti min egin badiezaioke, geratu isilik.

Bada, gomendio hura ez zitzaigun oso lagungarria gertatu. Samir gizajoak gorroto zuen besteek traidoretzat

jotzea. Aurre egin zien, eta nahi zuena esateko libre zela egin zien oihu. Beti bezala, haren ausardia miretsi nuen nik orduan ere, baina isilik geratu nintzen. Zera erabaki nuen: egia eta gezurra bereizten ahalegintzeaz gain (buruhauste galantak ematen zizkidan horrek berak), «sekretu» kategoria berri hura ere bereizi behar banuen, nahasmendu handi bati egin beharko niola aurre, eta hobe nuela behingoz onartu aldian-aldian iraindu egingo nindutela, eta traidoretzat hartu.

Asteroko nire gozamen-iturrietako bat Samir mirestea izaten zen, helduen aurka altxatzen zenean, eta uste nuen haren ondoan egonik ezer txarrik ezin zitzaidala gertatu. Egun berean jaio ginen Samir eta ni, ordubete eskaseko aldeaz, Ramadaneko¹ arratsalde luze batean. Samir jaio zen lehenengo, bigarren solairuan, eta haren amaren zazpigarren umea izan zen. Handik ordubetera jaio nintzen ni, gure saloian, beheko solairuan. Nire gurasoen lehen haurra izan nintzen, eta, ama leher eginda geratu bazen ere, behin eta berriz esan zuen nire izebak eta senitartekoek Samir jaio zenean egindakoak bezalako erritu-zeremoniak ospatu behar zituztela. Beti baztertu izan zuen gizonen nagusitasuna, zentzugabekeria hutsa zela esanez, eta musulmanen kontrakoa. «Alak berdinak egin gintuen denok», esaten zuen. Orduan, gogora ekartzen zuen etxeak bigarren aldiz egin

¹ Ramadan, musulmanen egutegiko hilabete sakratua, bederatzigarrena, eguzkia ateratzen denetik sartzen den arte egunero barau egitea ezartzen duena (*Itzultzailearen oharra*: Liburuan ageri diren ohar guztiak egilearenak dira).

zuela dar-dar arratsaldean, *you-you-you-you*² eta jai-giroko antzeko kanta tradizionalekin, eta nahasmena sortu zuela horrek auzoan, bi mutiko jaio zirela pentsatu baitzuten. Hunkituta zegoen aita: haur jaioberri mardula nintzen ni, «ilargi aurpegiarekin», eta aitak, bat-batean, erabaki zuen emakume ezin ederragoa izango nintzela. Lalla Manik, zirikatzeke, esan zion zurbilegia nintzela, begi arrailduegiak nituela, eta masailak, berriz, goregi. Aldiz, Samirrek «urre-distirako azal beltzaran ederra» zuela zioen, eta «belus beltzeko inoizko begirik handienak». Gerora, amak esan zidan isilik egon zela, baina, gorpuztari zutik eusteko gai izan orduko, Samir ikustera presatu zela, ea belusezko begiak zituen begiratzera. Eta, bai, halakoxeak omen zituen. Halakoak ditu orain ere, baina fintasun leun oro joan egiten zaio petralduta dagoenean. Eta neure buruari galdetu izan diot beti ea helduen kontra altxatu eta gora eta beheara jauzika ibiltze hura ez ote zion zor bere gorpuzkera ihar eta indartsuari.

Niri, aldiz, horren mardula nintzenez, ez zitzaidan inoiz burutik pasatu ere egin norbaitek gogaitzen banninduen haren aurka salto egiterik. Negarrez hasten nintzen, besterik gabe, eta, korrika, amaren kaftanaren atzean ezkutatzen nintzen. Amak, ordea, esaten zidan ezin nuela pentsatu beti Samir altxatuko zela nire orde:

² *You-you-you-you* kanta alai bat da, gertakari zoriontsuak ospatzeko emakumeek abesten dutena, hala nola haur bat jaiotzean edo ezkontzetan, eta baita gertakari arruntagoetan ere, brodatu bat bukatzean, esaterako, edo izeba zahar batentzat festa antolatzen denean.

—Oihu eta protesta egiten ikasi behar duzu, oinez eta hizketan ikasi duzun bezalaxe. Iraintzen zaituztenean negar egitea gehiago eskatzea da.

Esaneko emakume otzan bihurtuko nintzen beldur zenez, amona Yasminarekin hitz egin zuen udako oporretan bisitan joan gintzaizkionean, ezaguna baitzen ez zuela parekorik halako liskar-kontuetan. Amonak esan zion uzteko ni eta Samir konparatzeari, eta, horren orde, haur txikiak babesteko jarrera hartzera bultzatu behar ninduela.

—Modu asko daude nortasun sendo bat jorratzeko —esan zion—. Esaterako, besteen arduradun sentitzeko gaitasuna garatzea. Besterik gabe oldarkorra izatea eta besteak zerbait gaizki egiten duen bakoitzean haren eztarrira salto egitea modu bat da, eta ez oso dotorea, bide batez. Haur bati txikiagoen ardura ematen badiozu patioan dabiltzanean, indartsuagoa izaten lagunduko diozu. Ondo dago babes bila Samirrengana jozte; baina, besteak babesten ikasten badu, bere burua babesteko ere erabiliko du ikasitakoa.

Dena den, irratiarekin gertatutakoa ikasbide handia izan zen niretzat. Orduan irakatsi zidan amak nire hitzak murtzikatu behar nituela ahoz gora esan aurretik.

—Birarazi hitz bakoitza zure mihi inguruan zazpi aldiz, ezpainak estu-estu dituzula, esaldi bat bota aurretik —esan zidan—. Zure hitzak kanporatu orduko, asko duzu galtzeko.

Gogora etorri zitzaidan orduan *Mila gau eta bat gehiago* liburuko ipuin batean gaizki esandako hitz batak batek nolako hondamendia ekar diezaiokeen hura

esan zuenari, kalifari edo erregeari atsekabea eraginez gero. Zenbaitetan, *siafari* ere deitzen zioten, borreroari.

Nolanahi ere, hitzak artez josten jakinez gero, pertsona bat salba zezaketen. Halaxe gertatu zitzaion Xeherezaderi, mila eta bat ipuinen egileari. Burua moztu behar zion erregeak, baina, azken unean, hura geldiaraztea lortu zuen bere hitzak erabiliz. Nola lortu zuen jakiteko irrikaz nengoen ni.

AURKIBIDEA

<i>Hitzaurrea</i>	7
<i>Argitaratzailearen oharra</i>	13
1. Nire hareman mugak	17
2. Xeherezade, erregea eta hitzak	31
3. Harem frantsesa	41
4. Yasminaren lehen emaztekidea	49
5. Chama eta kalifa	63
6. Tamouren zaldia	75
7. Harema norberaren barruan	85
8. Harrikoa uretan sartuta	97
9. Barrez ilargiaren argitan	105
10. Gizonen egongela	115
11. Patiotik Bigarren Mundu-Gerrari begira	129
12. Asmahan, printzesa kantaria	141
13. Harema zinemara doa	155
14. Egiptoar feministen bisita terrazan	169
15. Budur printzesaren patua	183
16. Terraza debekatua	193
17. Mina, sustraieztatik erauzia	209
18. Zigarro amerikarrak	231
19. Biboteak eta bularrak	249
20. Hegoen eta hegaldien isileko ametsa	267
21. Azalaren gobernua: arrautzak, datilak eta edertasunerako beste sekretu batzuk	289
22. Henna, buztina eta gizonen begiratuak	305